

Gaur, bihar eta etzi lezoarrek Mendekoste Jaiak ospatuko dituzte. Herriko pirata ezagunenak berriro Lezoko kaia zapalduko du, aurtengo jaietara ongi etorria egiteko.

# Zabarre pirata bueltan da

—IMANOL SAIZ Lezo

**L**ezo betidanik itsasoarekin lotura izan duen herria izan da. Azken mendeetan, kaiak eta herriak berak hamaika pirata ikusi ditu. Horietatik ezagunena —eta txikientzako kuttunena— Zabarre pirata da. Azken hilabeteetan Beltza ontzian itsasotik egindako bidaietan lapurtutako aberastasunak lezoarrek partekatzen dator. Gaur, kaian lehorreratu ondoren, urtero bezala, Mendekoste Jaietara hasiera emango die.

1977. urtean Zabarre, Joxe Zabalen kondaira komikia argitaratu zenetik, pirata Lezoko protagonista nagusia izan da. 1993an, lehen aldiz lehorreratu zen herrian. Orduz geroztik, lezoarrek urtean zehar irrikitan itxaroten dute pirataren itzulera, jai eta festaren seinale den itzulera hori. Oarso Bidasoko jai handietatik lehenak dira mendekosteak.

Zabarreraren lehorreratze eta pregoiak, azken hamar urteetan «beste indar bat» hartu dutela adierazi du Xanti Val Kultura teknikariak. «Berezi» egiten dituzte jaiak, eta geroz eta «kanpoko jende gehiago» datorrela aipatu du. «Pregoa oso polita da, ikusgarria», gehitu du.



Zabarre pirata, iazko lehorreratzean. Pregoia pirata txikiek egingo dute, jaiak ofizialki abiarazteko. HITZA

Gaur, bihar eta etzi. Hurrengo egunetan lezoarrek pirataz jan-

tziko dira, Zabarreraren hogeita laugarren lehorreratzea ospatuko, beste urte batez festak diren altxor preziatua denekin elkarbanatuko.

## 30 ekitalditik gora

Aurtengo mendekosteetarako 30 ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte. Etxeko txikientzat eta helduentzat. Buruhandietatik truk txapelketara. Denek izango dute euren txokoa herriko jaietan.

Mendekoste Jaietan erakargarritasun gehien duen ekitaldia, Zabarreraren joan-etorriez gain, biharko Sagardo Eguna da. Urteko uzta dastatzeko unea iritsi zaie herriko sagardo zaleei XIX. Sagardo egunean.

Bederatzi sagardogilek hartuko dute parte aurtengo sagardoaren festan. Gurutze Santuaren plazak jasoko du urteko dastaketa, 18:00etatik aurrera. Eguraldia lagun ez bada, Karlos Saldise plazan kokatuko dituzte postuak.

Valek Lezoko Dantzazaleak taldearen lana eskertzeko aukera

baliatu du hein berean, «eskerak eman nahi izan dizkiegu urtero musu-truk, egun osoko dantza festa antolatzeko prest dardelako». Haien emango diote hasiera Sagardo Egunari, *Mahai gaine*ko dantzarekin.

Sagardo Egunaz gain, dantza eta musika saio, txapelketa eta ekitaldi mordo antolatu dituzte. Aipatzekoak dira, besteak beste, gaurko piraten afari autogestionatua, biharko Usurbilgo Musika Eskolako kideen pop-rock emanaldia, edota etziko zezuzkoa.

## Erasorik ez

Aurtengo Mendekoste Jaietarako, eraso sexisten aurrean herritarrek jarrera aktiboagoa izateko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina abiatu du Lezoko Udalak.

Azken urteetan Errenteria, Oiartzun eta Pasaia udalekin elkarlanean egin bezala, jaietarako propio egindako erasoaren aurkako protokoloa ere martxan jarriko dute. *Eraso bat ikusi, en-*

*tzun edo jasaten baduzu, erantzun!* leloarenpean jaiak denon eskubideak eta askatasuna errespetatuz joan daitezela nahi dute.

Horrela, eraso sexista baten aurrean nola erantzun ezagutarazteko herritarren eskura argibide sorta bat jarri dute. Lehenik,

## Zabarre piratak, hogeita laugarrenez, Lezoko kaia zapalduko du gaur

## Udalak, erasoak ekiditeko, iazko protokolo berbera jarri du martxan

eta behin, protokoloan jasota dagoenez, eraso jasan duen emakumearengana gerturatu, laguntza behar duen galdetu eta bere erabakia errespetatu behar da.

Bigarrenez, jarrera matxistarik edo gogaikarrik gertatzen bada, jarrera hori eragiten ari den pertsonari gelditzeko eskatu behar zaio, eta gelditzen ez bada,

PASAIÁ - LEZO  
**LIZEOA**  
www.lizeoa.eus  
ikastolenelkartea

**LIZEOA LEZOARREKIN MENDEKOSTETAN!**